EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98
Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98
Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

## OSASUN SAILA

### Zk-4159

Agindua, 2003ko ekainaren 3koa; honen bidez deialdia egiten da elkarte zientifiko-sanitarioei, profesionalen elkargoei, irakaskuntza-batzordeei eta ikerkuntzarako laguntza-unitateei euren funtzionamenduan eta pertsonala prestatzeko jarduera-antolaketan laguntza emateko.

Biztanleriari atentzio sanitario egokia ematea faktore askoren menpe dago; horien artean, pertsonal sanitarioaren trebakuntza nabarmentzen da, eta horretarako kalitatezko hezkuntza-prozesua behar da.

Irakaskuntza- eta prestakuntza-jarduera asko hainbat kategoriatako entitateen bidez gauzatzen dira. Entitate horien lehentasun-helburuen artean dago, beste arlo zabalago batzuetan, batez ere euren kideen gaitasuna lortzea, eta, oro har, profesional sanitarioena ere bai. Beraz, lehenengo prestakuntza-zikloa amaitzen dutenean, aipatutako profesional sanitario horiek prestakuntza-jarduerak dituzte Euskadiko sisteman sanitarioan, bai euren espezializazio-prozesuak dirauen bitartean, bai lanean dihardutenean.

Jarduera horiek bi motatakoak dira: batetik, era guztietako ikastaroak eskaintzen dira; horretan dihardute Espezializazioko Irakaskuntza-batzorde eta -unitateek, Ikerkuntzarako Laguntza-Unitateek, Profesionalen Elkargoek, Erakunde Sanitarioek eta beste zenbait entitatek ere bai, batez ere, Elkarte Zientifikoek.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-4159

Orden de 3 de junio de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan ayudas a asociaciones científico-sanitarias, colegios profesionales, comisiones de docencia y unidades de apoyo a la investigación, para su funcionamiento y organización de actividades de formación del personal.

Una correcta atención sanitaria a la población depende de múltiples factores, entre los que cobra una singular relevancia la capacitación del personal sanitario, para lo que se requiere un proceso formativo de calidad.

Muchas de las actividades de docencia y formación se ejercen a través de entidades de diferente categoría que buscan entre sus objetivos prioritarios la capacitación de sus miembros en particular o incluso la de profesionales sanitarios en ámbitos más amplios. Así, una vez terminado su primer ciclo de formación, dichos profesionales sanitarios tienen acceso a actividades de formación durante su proceso de especialización y a lo largo de su actividad laboral en el sistema sanitario de Euskadi.

Estas actividades son de dos tipos. En primer lugar se ofrecen cursos, dentro del más amplio contenido de este concepto. En ese cometido trabajan las Comisiones y Unidades Docentes de Especialización, las Unidades de Apoyo a la Investigación, los Colegios Profesionales, las instituciones sanitarias y otra serie de entidades entre las que figuran sobre todo las Asociaciones Científicas.

Bestetik, entitate horietako asko elkargune gisa bultzatzen dira, profesionalen arteko komunikazioa errazagoa egiteko, ezagutzaren hedapena kudeatuz. Batzuetan, bilera zientifikoak antolatzen dira, eta beste batzuetan aldizkako edizioak argitaratzen dira.

Hori horrela, ondokoa

XEDATU DUT:

I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Helburua.

Agindu honen helburua da zenbait gastu arautzea eta gastu horien finantzazio-laguntzetarako deialdia egitea. Gastuen jatorriak ondokoak dira:

a) Euskadiko Autonomia Erkidegoan 2003 urtean egitekoak diren edo urte horretan hastekoak diren osasun-jarduera zientifikoen prestakuntza- eta hedapen-jarduerak antolatzea. Modalitateak bi izango dira:

– Bilera zientifikoak antolatzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi, mintegi eta antzerako jarduerak antolatzea.

– Ikastaroak antolatzea.

b) Espezialitate-elkarte zientifikoen funtzionamendua, baita izaera sanitarioko eta irabazi-asmorik gabeko elkarteen funtzionamendua ere, baldin eta Euskadiko Autonomia Elkartean badaude, profesional sanitarioei prestakuntza eta eguneratze teknikoa ematen badiete eta ikerkuntza ondoko bi modalitateekin bultzatzen badute:

– Entitate zientifiko-sanitarioak sortzeko edo funtzionatzeko laguntzekin.

– Aldizkako argitarapenak egiteko laguntzekin.

*2. artikulua.–* Onuradunak.

1.– Dagokion kapituluan modalitate bakoitzerako aipatzen diren entitateak, horiexek izango dira agindu honetako laguntzez baliatuko ahal izango direnak.

Onuradunei laguntzak emateko edo, hala badagokio, laguntzak ordaintzeko, derrigorrezkoa da tramitazioan dagoen itzulera-prozedurarik edo zehapen-prozedurarik ez izatea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntza- edo diru-laguntza-esparruan.

*3. artikulua.–* Kontzesio-prozedura.

Deialdia egiten den modalitate bakoitzean, laguntzen kontzesioa lehiaketa-prozeduraren bidez egingo da. Lehiaketa hori zerean aurreikusten da, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Le-

Pero además, muchas de estas entidades se potencian como lugares de encuentro para favorecer la comunicación entre profesionales, gestionando así la difusión del conocimiento. Unas veces es en forma de organización de reuniones científicas y otras mediante la edición de publicaciones periódicas.

En su virtud

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación y convocatoria de ayudas destinadas a financiar los gastos derivados de:

a) La organización de actividades formativas y de difusión de la actividad científica en salud que vayan a celebrarse, o cuya organización comience durante el año 2003, en la Comunidad Autónoma del País Vasco con dos modalidades:

– Organización de reuniones científicas, entendiendo por tales los congresos, simposios, jornadas, seminarios y otras actividades análogas.

– Organización de cursos.

b) El funcionamiento de sociedades científicas de especialidades y demás entidades asociativas de carácter sanitario sin ánimo de lucro, con domicilio oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que faciliten a los profesionales sanitarios formación y actualización técnica o fomenten la investigación con dos modalidades:

– Ayudas a la constitución o funcionamiento de entidades científico sanitarias.

– Ayudas a publicaciones periódicas.

*Artículo 2.–* Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden las entidades que para cada modalidad se indican en el respectivo capítulo.

La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 3.–* Procedimiento de concesión.

La concesión de las ayudas contempladas se efectuará, en cada modalidad que se convoca, por el procedimiento de concurso previsto en el artículo 51.4 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de

gearen Testu Bateginean, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutakoan, bere 51.4 artikuluan. Beraz, kontzesioa modalitate bakoitzean aurkeztutako eskabideak konparatuta egingo da, euren artean lehentasuna ezartzeko. Lehentasun hori zein den erabakiko da, batetik, Agindu honetako dagokion kapituluan eskabide bakoitzerako ezartzen diren balorazio-irizpideak oinarri hartuta eta, bestetik, balorazio-fasean gutxienez hirurogei puntu lortu dituzten eskabideak bakarrik aintzat hartuta. Hori horrela izango da modalitate bakoitzari esleitutako kredituak agortu arte (halakorik gertatzen bada).

*4. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen helbururako diren baliabide ekonomikoen zenbateko globala berrehun eta hirurogeita bederatzi mila zazpiehun eta bi eurokoa da (269.702,00-euro). Baliabide ekonomiko horiek datoz, etorri, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horrexetarako ezarri diren kredituetatik. Baliabide ekonomikoak, bada, ondoan zehazten den moduan banatu dira deialdiaren modalitateen artean:

| | |
|---|---|
| Bilera zientifikoak: | 62.002,00.- euro. |
| Ikastaroak: | 158.142,00.- euro. |
| Entitateen eraketa, funtzionamendua | 28.974,00.- euro. |
| Argitalpenak | 20.584,00.- euro. |

2.– Aipatutako zenbatekoak aldatu daitezke, modalitate bakoitzean zenbat laguntza eskatu den kontuan hartuta eta Osasun Saileko beste laguntza-programetatik agortu gabe gelditu diren posibilitate ekonomikoen arabera, betiere, Deialdiaren Ebazpena gauzatu baino lehen. Zirkunstantzia horren berri Osasun Saileko sailburuordeak emango du Ebazpen baten bidez.

Agindu honetan jarritako laguntza-modalitateren baten deialdia behin ebatziz gero, soberakinak gelditzen badira, soberakin horiek Deialdiko beste modalitate ebatzi gabeen dotazioak handitzeko gorde daitezke. Zirkunstantzia hori gertatuz gero, Osasun Saileko sailburuordeak ere emango du horren berri Ebazpen baten bidez.

*5. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoa.

Agindu honetako dagokion kapituluan ezartzen den laguntza-modalitate bakoitzari kalte egin gabe, ezin izango da gainditu inola ere eskabidean jarritako defizita, bere ehuneko ehunekoa lor badaiteke ere.

*6. artikulua.–* Laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honen babespean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako erdietsi litekeen beste edozein motatako laguntza edo diru-laguntzarekin, baldin horrela finantzaturiko jardueraren gainfinantzaketa bat eratortzen ez bada. Hori gertatzen bada, emandako laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da dagokion gehieneko mugaraino.

la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre. A estos efectos la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas en cada modalidad, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración que para cada una de ellas se fija en el correspondiente capítulo de esta Orden, y adjudicando las ayudas sólo a aquellas solicitudes que en la fase de valoración hayan obtenido un mínimo de sesenta puntos, hasta el agotamiento, en su caso, de los créditos asignados a cada modalidad de que se trate.

*Artículo 4.–* Recursos económicos.

1.– El importe global de los recursos económicos destinados a la finalidad de la presente Orden, procedentes de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, asciende a la cantidad de doscientos sesenta y nueve mil setecientos dos (269.702,00-.)Euros, distribuido entre las modalidades convocadas del siguiente modo:

| | |
|---|---|
| Reuniones científicas: | 62.002,00 euros. |
| Cursos: | 158.142,00 euros. |
| Constitución, funcionamiento de entidades | 28.974,00 euros. |
| Edición publicaciones | 20.584,00 euros. |

2.– Los expresados importes podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas en cada modalidad, en función de las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y con carácter previo a la Resolución de la Convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

Si resuelta la convocatoria de alguna de las modalidades de ayuda contempladas en la presente Orden existieran recursos remanestes, éstos podrán destinarse a incrementar las dotaciones de las restantes modalidades convocadas aún sin resolver. De producirse dicha circunstancia se dará también publicidad de ella mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

*Artículo 5.–* Cuantía de las ayudas.

Sin perjuicio de lo que para cada modalidad de ayuda se prevea en el capítulo correspondiente de esta Orden no podrá superar en ningún caso el déficit aducido en la solicitud, pudiendo alcanzar el ciento por ciento del mismo.

*Artículo 6.–* Compatibilidad de las ayudas.

Las ayudas que se concedan al amparo de la presente Orden serán compatibles con la obtención de cualquier otro tipo de ayuda o subvención que se pudiera obtener para el mismo fin siempre que de ello no se derive sobrefinanciación de la actuación con ella financiada. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

*7. artikulua.*– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak eta eurekin batera joan behar duen dokumentazioa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, Agindu hau indarrean jartzen denetik kontatuta. Dokumentazio hori, bestetik, laguntza-modalitate bakoitzerako dagokion kapituluan zehazten da.

2.– Agindu honetan ezarritako laguntzez baliatzeko eskabideak dagokion eredu normalizatuan formulatuko dira, nahi den laguntza-modalitate bakoitzerako. Eredua, bestetik, eranskin gisa agertzen da, eta eskabideak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari bidaliko zaizkio (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz). Gainera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 legean emandako idazkeran, ezarritako gainerako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

*8. artikulua.*– Eskabidearen hutsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskabideak beren termino guztietan bete gabe etortzen badira, edo laguntza-modalitate bakoitzerako azaltzen den dokumentazioarekin lagundu gabe badaude, interesatuari eskatuko zaio hutsa zuzendu dezala hamar eguneko epearen barruan edo behar diren dokumentuak aurkez ditzala. Esango zaio, gainera, horrela egiten ez badu, bere eskabidea baliogabetutzat joko dela. Administrazioak, bere aldetik, eskabideari buruzko ebazpena eman eta jakinaraziko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

*9. artikulua.*– Eskabideen ebaluazioa:

1.– Modalitate bakoitzerako aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, dagokion Balorazio Batzordea eratuko da, eta kideak hauexek izango dira: presidentea, Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria; bokalak: Osasun Planaren zuzendariordea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Atentzio Espezializatuko Programen koordinatzailea; eta Osasun Saileko I+D Laguntzen teknikari arduraduna, azken hau idazkari legez.

2.– Batzordeak, laguntza-modalitate bakoitzerako aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuz, formulatu diren eskabideak ebaluatu eta dagokion ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Osasun sailburuordeari.

*10. artikulua.*– Ebazpena.

1.– Deialdiko modalitate guzti-guztiak Osasun sailburuordeak ebatziko ditu, Balorazio Batzordeak proposatuta.

*Artículo 7.*– Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes y de la restante documentación que deberá acompañarla y que se enumera para cada modalidad de ayuda en el capítulo correspondiente, será de dos meses a partir de la entrada en vigor de la presente Orden.

2.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas establecidas en la presente Orden, se formularán, para cada modalidad de ayuda que se pretenda, en el correspondiente modelo normalizado que figura como anexo y se dirigirán y remitirán al Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, C/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, pudiendo asimismo, presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

*Artículo 8.*– Subsanación de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que para cada modalidad de ayuda se indica, se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 9.*– Evaluación de las solicitudes:

1.– Para la evaluación de las solicitudes presentadas en cada modalidad se constituirá la correspondiente Comisión de Valoración integrada por el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, que actuará como presidente, y como vocales por el Subdirector del Plan de Salud, el Coordinador de Programas de atención especializada del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud y el técnico responsable de Ayudas en I+D del Departamento de Sanidad, que actuará como secretario.

2.– La Comisión en aplicación de los criterios de valoración previstos para cada modalidad de ayuda evaluará las solicitudes formuladas y elevará al Viceconsejero de Sanidad la correspondiente propuesta de resolución.

*Artículo 10.*– Resolución.

1.– Cada una de las modalidades convocadas será resuelta por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de la respectiva Comisión de Valoración.

2.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA aurrerantzean) argitaratuta jakinaraziko zaizkie interesatuei, hiru hilabeteko epearen barruan, eskabideen aurkezpen-epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

3.– Aipatutako epea pasatu eta interesatuei dagokion ebazpena ez bazaie jakinarazi, interesatuek ulertuko dute beren eskabidea ez dela aintzat hartu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osasun sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

5.– Eskabidearekin batera aurkeztu den dokumentazioa berreskuratzeko epea, laguntza ukatu den kasuetan, hilabetekoa izango da dagokion Ebazpenaren argitaratzetik kontatzen hasita, betiere ebazpenari ez bazaio errekurtsorik egin. Errekurtsorik egin bada, epea berori ezesteko ebazpenaren jakinarazpenetik aurrera hasiko da.

*11. artikulua.–* Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako diru-laguntzak jasotzen dituen onuradunak betebehar hauek izango ditu:

a) Emandako laguntza onartzea. Horren ildotik, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena EHAAn argitaratzen denetik 15 egun naturaleko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten, laguntza onartu dela ulertuko da.

b) Laguntza berez dagokion zereginerako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren zereginetan dihardutela, deialdi honen kargura jaso diren diru-laguntzen inguruan eskatzen duten informazio guztia ematea.

d) Eskabidea egiteko orduan kontuan hartutako datu edo inguruabarretan edozein aldaketa gertatuz gero, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Jasota uztea Eusko Jaurlaritza dela, Osasun Sailaren bidez, diruz lagundutako jardueraren edo ekintzaren garapenaren babeslea.

*13. artikulua.–* Laguntzen ordainketa.

1.– Ematen diren laguntzen ordainketa bi alditan gauzatuko da, bakoitzean emandako laguntzaren zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamarra (%50) ordainduz.

2.– Las Resoluciones serán notificadas a los interesados mediante su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco (en adelante BOPV) dentro de los tres meses contados desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

3.– Si transcurrido dicho plazo no se ha notificado la correspondiente Resolución, los interesados podrán entender desestimada su solicitud a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

5.– El plazo para retirar la documentación aportada con la solicitud, en los casos de denegación de la ayuda, será de un mes a partir de la publicación de la correspondiente Resolución, siempre que no se hubiese recurrido la misma. En caso de presentarse recurso, el plazo comenzará a contar desde la notificación de la resolución desestimatoria.

*Artículo 11.–* Obligaciones de los beneficiarios.

El beneficiario de la subvención deberá cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días naturales tras la fecha de la publicación de la Resolución de concesión en el BOPV. la entidad beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la subvención recibida con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud.

e) Dejar constancia expresa del patrocinio del Gobierno Vasco a través del Departamento de Sanidad, en el desarrollo de la actividad o actuación subvencionada.

*Artículo 13.–* Abono de las ayudas.

1.– El pago de las ayudas que se concedan se efectuará fraccionadamente mediante sendos abonos por importe equivalente al cincuenta por ciento (50%) de la cantidad concedida.

2.– Lehenengo ordainketa 11.a) artikuluan adierazten den epea onuradunaren aldetik berariazko ukorik gabe igaro bezain laster egingo da.

3.– Bigarren ordainketa, diru-laguntza eman zaion aktibitatea edo jarduera gauzatu dela eta zenbat kostatu den justifikatu ondoren, laguntza-mota bakoitzarentzat aurrerago zehazten diren epemuga eta baldintzen arabera.

*14. artikulua.–* Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan eduki diren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, baldin helburu berarekin beste erakunde publiko zein pribaturen baten laguntzarik jaso bada, diru-laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da. Horretarako, dagokion likidazio-ebazpena emango du Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak, bertan diru-laguntzen zenbatekoak doituko direlarik.

*15. artikulua.–* Baldintzak ez betetzea.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutakoarekin bat etorriz, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena, baldin onuradunak betetzen ez baditu ezarritako baldintza eta epeak edota beka beste helburu baterako erabiltzen badu, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu egin duela eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta legezko korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar dituela deklaratu ahal izango da, ebazpen bidez, prozedurazko izapideak egin ondoren, bidezkoak izan daitezkeen beste eginbide batzuen kalterik gabe. Diru-zenbateko horiek, ondorio guztietarako, diru-sarrera publikotzat joko dira.

Ez-betetzeagatiko espedientea hasi eta ebazteko eskumena Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari dagokio.

II. KAPITULUA

BILERA ZIENTIFIKOAK ANTOLATZEKO LAGUNTAK

*16. artikulua.–* Helburua.

Agindu honen helburua da Osasun alorreko zientziazko jarduerak zabaltzeko Euskal Autonomia Erkidegoan 2003an egitekoak diren edo hastekoak diren zientzi bilkuren antolaketa finantzatzeko laguntzak ematea.

Modalitate honetatik kanpo geratzen dira erakundeetan beren estatutu eta araudiak aplikatuz egiten biren bilera arruntak.

*17. artikulua.–* Hartzaileak.

2.– El primer libramiento se materializará con carácter inmediato una vez transcurrido el plazo indicado en el artículo 11.a) sin mediar renuncia expresa del beneficiario.

3.– El segundo libramiento se efectuará previa justificación de la realización de la actividad o actuación subvencionada y de su costo en los términos y plazos que para cada modalidad de ayuda se estipulan más adelante.

*Artículo 14.–* Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la cuantía de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria se dictará la oportuna Resolución de minoración, en la que se reajustará el importe de la ayuda concedida.

*Artículo 15.–* Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el supuesto de que el beneficiario incumpliere los requisitos, plazos establecidos o el destino de la ayuda, se declarará, previa la sustanciación de los trámites procedimentales oportunos, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Será competente para el inicio y resolución de expediente por incumplimiento el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria.

CAPÍTULO II

AYUDAS A LA ORGANIZACIÓN DE REUNIONES CIENTÍFICAS

*Artículo 16.–* Finalidad.

Es objeto de esta modalidad de ayuda colaborar en la financiación de la organización de reuniones para la difusión de la actividad científica en salud, que vayan a celebrarse o cuya organización comience durante el año 2003 y que tengan lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Quedan excluidas de esta modalidad las reuniones ordinarias que se efectúen por las entidades en aplicación de sus propios estatutos y reglamentos.

*Artículo 17.–* Destinatarios.

Laguntza-mota hauek jaso ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko elkarte zientifikoek, profesional sanitarioen Elkargo Ofizialek, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko beste zerbitzu batzuetako Erakundeen Irakaskuntza-batzordeek, baldin baimenduak badaude barneko profesionalen programetarako irakasle izateko, Medikuntza Familiar eta Komunitarioko espezialitatea irakasten duten Lehen Atentzioko Irakaskuntza Unitateek, Psikiatria eta Psikologia Klinikoko espezialitateak koordinatzen dituzten Osasun Mentaleko Batzorde Aholkulariak eta ikerkuntza Babesteko Unitateek.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzukoak diren gainerako zentroak.

*18. artikulua.–* Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideak agindu honen I. eranskinean agertzen den ereduari jarraituz beteko dira, eta horiekin batera honako agiri hauek aurkeztuz:

a) Elkarteen Erroldan edo dagokion errolda publikoan inskribaturik dagoela egiaztatzeko agiriaren kopia.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Entitate antolatzailearen estatutu edo arautegi ofizialen kopia.

d) Lekuan lekuko erakunde administrariaren ziurtagiria, entitate antolatzaileek zerga-obligazioak ordainduta dituela edo horiek ordaindu beharrik ez duela egiaztatzen duena.

e) Bilkura edo ikastaroa antolatzeko helburuak zein izan diren eta nolako hedadura izango duten aurreikusten deneko memoria.

f) Bilkura edo ikastaroa antolatzeko arduradunaren curriculum vitae laburtua.

g) Aldez aurreko egitaraua, zientzi egintzaren deskribapen ahalik eta zehatzena emanez.

h) Hizlarien edo irakasle nagusien izenak, izan duten bilakaera zientifikoa edo profesionala nolakoa izan den laburki zehaztuz eta, bilkuren kasuan, Zientzi Batzordeko kideen izenak eta bakoitzaren jarduera zientifikoaren aipamen labur bat.

i) Diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza.

j) Bankuko datuak, beharrezko izanez gero (II. eranskina).

Azken bost urteotan laguntza hauetako deialdietara aurkeztu diren entitateek ez dute a), b) eta c) puntuetako agiririk aurkeztu beharrik izango, baldin eta eskatutako agiri horietako datuetan ordutik hona aldaketarik egon ez bada.

Podrán acceder a esta modalidad de ayudas las asociaciones científico-sanitarias sin ánimo de lucro, los Colegios Oficiales profesionales sanitarios y las Comisiones de Docencia de las Organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud y de otras Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco que tengan reconocida la docencia para los programas de profesionales sanitarios internos, las Unidades Docentes de Atención Primaria que impartan la especialidad de Medicina Familiar y Comunitaria, las Comisiones Asesoras de Salud Mental que coordinan las especialidades de Psiquiatría y Psicología Clínica y las Unidades de Apoyo a la Investigación.

Quedan excluidos de la presente convocatoria el resto de centros pertenecientes a Osakidetza-Servicio vasco de salud.

*Artículo 18.–* Solicitud y documentación a presentar.

La solicitud de ayuda habrá formularse cumplimentando el modelo normalizado que se recoge en Anexo I, al que deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Copia, en su caso, del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o registro público correspondiente.

b) Copia, en su caso, del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

c) Copia, en su caso, de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad organizadora.

d) Documento, en su caso, expedido por la instancia administrativa correspondiente acreditando que la entidad organizadora está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

e) Memoria en la que se recojan los objetivos que han llevado a organizar la reunión, así como la difusión prevista de las actividades.

f) Curriculum Vitae abreviado del responsable de la organización de la reunión.

g) Programa preliminar, con una descripción lo más detallada posible del acto científico.

h) Nombre de los ponentes principales, con una breve especificación de su trayectoria científica y profesional y composición del Comité Científico con una breve reseña de la actividad científica de cada componente.

i) Presupuesto detallado de ingresos y gastos.

j) Datos bancarios, en su caso (Anexo V).

Las entidades que se hayan presentado a la convocatoria de ayudas análogas a éstas en los últimos cinco años no deberán presentar los documentos a), b) y c), siempre y cuando no haya habido modificaciones en los datos a los que haría referencia la documentación exenta de presentación.

*19. artikulua.–* Esleitzeko irizpideak.

1.– Laguntzen esleipena honako irizpide hauetan oinarriturik egingo da:

Ekitaldiaren zientzi interesa adierazten duen txostenaren edukia: Gehienez 60 puntu.

Helburuak zenbateraino bat datozen Osasun Sailaren arlo nagusiekin, horien artean, besteak beste, Osasun Plana, zaharren atentzioa, emakumearen osasuna eta asistentziaren kalitatea hobetzea eta Europako Batasunaren deialdien helburuekin bat datozenak: Gehienez 40 puntu.

*20. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, hauek hartuko dira kontuan: gastuen eta sarreren aurrekontua, gizarte-gastuak kenduta, eta bestelako finantzabideak, halakorik badago behintzat.

Ematen den diru-laguntzak ez du inoiz eskabidean adierazten den defizit osoa gaindituko.

*21. artikulua.–* Ordaintzeko modua.

Laguntzen ordainketa 13. artikuluan aurreikusten den arabera gauzatuko da; eta bigarren igorpena, artikulu horrek berak aipatzen duena, lagundutako bilkura egin ostean eta, 3 hilabeteko epean gehienez, agiri hauek bidali ondoren:

a) Diruz lagundutako bilkurak sortutako gastu eta sarrera guztien ekonomi balantzea, erakundearen legezko ordezkariaren oniritziarekin.

b) Bilkurak edo ikastaroak sortutako gastu guztien, gastu sozialenak salbu, fakturen jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak, salbu eta laguntza esleitzeko ebazpenean zein kontzeptu ordaintzeko ematen den zehazten bada, kasu horretan kontzeptu horiei buruzko jatorrizko fakturak baino ez baitira aurkeztuko.

c) Zientziaren ikuspegitik egindako balantzea duen amaierako memoria, bilkurako Aktak edo ikastaroan emandako materialekin batera.

d) Dagokion erakunde administratiboak egindako egiaztagiria, bilkura antolatzen duen elkarteak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena. Aipatu egiaztagiriak puntu honetan exijitzen den dokumentazioa bidaltzeko unean eguneratuta egon behar du.

Deialdi hau indarrean jarri aurretik egin bada bilkura, agiri horiek aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, Osasun sailburuordeak laguntzak esleitzeko emandako ebazpena argitaratzen denetik kontatzen hasita.

*Artículo 19.–* Criterios de adjudicación.

La adjudicación de las ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

Contenido de la documentación presentada mostrando el interés científico del acto: Máximo 60 puntos.

Coincidencia de los objetivos de la reunión con las áreas prioritarias del Departamento de Sanidad, como son, entre otras, las relacionadas con el Plan de Salud, atención a ancianos, la salud de la mujer, las de mejora de la calidad asistencial y aquellas que coincidan con las convocatorias de la Unión Europea: Máximo 40 puntos.

*Artículo 20.–* Cuantificación de las ayudas.

Para determinar la cuantía de la ayuda, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos, excluyendo los gastos sociales, y tendrá en cuenta otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud.

*Artículo 21.–* Pago.

El Pago de la ayuda concedida se efectuará según lo previsto en el artículo 13, efectuándose el segundo libramiento a que el mismo se refiere una vez realizada la reunión científica subvencionada, tras la presentación, en un plazo máximo de tres meses desde su finalización, de la siguiente documentación:

a) Balance económico de los gastos e ingresos totales de la reunión subvencionada, con el visto bueno del represente legal de la entidad organizadora.

b) Originales o copias compulsadas de las facturas del total de gastos generados por la organización de la reunión científica, excluyéndose los gastos sociales, salvo que en la Resolución de concesión se determinen los conceptos para cuyo pago va dirigida la ayuda, en cuyo caso sólo deberán presentarse las facturas originales relativas a dichos gastos.

c) Memoria final con el balance científico, incluyendo Actas de la reunión y, en su caso, material entregado.

d) Documento, en su caso, expedido por la instancia administrativa correspondiente, acreditando que la entidad organizadora de la reunión está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas. Esta certificación deberá estar actualizada al momento del envío de la documentación exigida en este punto.

En el supuesto en que la reunión se hubiese celebrado con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Convocatoria, la citada documentación deberá presentarse en el plazo de tres meses contados a partir de la publicación de la Resolución del Viceconsejero de Sanidad por la que se conceden las ayudas.

III. KAPITULUA

IKASTAROAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

*22. artikulua.–* Helburua

Agindu honen helburua da Osasun alorreko ikastaroen antolaketaren finantzazioan laguntzea, profesional sanitarioak prestatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan 2003an egitekoak diren edo urte horretan hasiko diren ikastaroei dagokienez.

*23. artikulua.–* Hartzaileak.

Laguntza-mota hauek jaso ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko elkarte zientifikoek, profesional sanitarioen Elkargo Ofizialek, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko beste zerbitzu batzuetako Erakundeen Irakaskuntza-Batzordeek, baldin baimenduak badaude barneko profesionalen programetarako irakasle izateko, Medikuntza Familiar eta Komunitarioko espezialitatea irakasten duten Lehen Atentzioko Irakaskuntza Unitateek, Psikiatria eta Psikologia Klinikoko espezialitateak koordinatzen dituzten Osasun Mentaleko Batzorde Aholkulariak eta ikerkuntza Babesteko Unitateek.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzukoak diren gainerako zentroak.

*24. artikulua.–* Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideak agindu honen II. eranskinean agertzen den ereduari jarraituz beteko dira, horiekin batera honako agiri hauek aurkeztuz:

a) Elkarteen Erroldan edo dagokion errolda publikoan inskribaturik dagoela egiaztatzeko agiriaren kopia.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.

c) Entitate antolatzailearen estatutu edo arautegi ofizialen kopia.

d) Lekuan lekuko erakunde administrariaren ziurtagiria, entitate antolatzaileek zerga-obligazioak ordainduta dituela edo ordaindu beharrik ez duela egiaztatzen duena.

e) Bilkura edo ikastaroa antolatzeko helburuak zein izan diren eta nolako hedadura izango duten aurreikusten deneko memoria.

f) Ikastaroa antolatzeko arduradunaren curriculum vitae laburtua.

g) Aldez aurreko egitaraua, ikastaroaren deskribapen ahalik eta zehatzena emanez.

h) Hizlarien edo irakasle nagusien izenak, izan duten bilakaera zientifikoa edo profesionala nolakoa izan den laburki zehaztuz.

CAPÍTULO III

AYUDAS PARA LA ORGANIZACIÓN DE CURSOS.

*Artículo 22.–* Finalidad.

Es objeto de la presente modalidad de ayuda colaborar en la financiación de la organización de cursos de carácter sanitario cuya finalidad sea la formación de los profesionales sanitarios, que vayan a celebrarse o cuya organización comience durante el año 2003 en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 23.–* Destinatarios.

Podrán acceder a esta modalidad de ayudas las asociaciones científico-sanitarias sin ánimo de lucro, los Colegios de profesionales sanitarios las Comisiones de Docencia de las Organizaciones de Servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud y de otras Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco que tengan reconocida la docencia para los programas de profesionales sanitarios internos, las Unidades Docentes de Atención Primaria que impartan la especialidad de Medicina Familiar y Comunitaria, las Comisiones Asesoras de Salud Mental que coordinan las especialidades de Psiquiatría y Psicología Clínica y las Unidades de Apoyo a la Investigación.

Quedan excluidos de la presente convocatoria el resto de centros pertenecientes a Osakidetza-Servicio vasco de salud.

*Artículo 24.–* Solicitud y documentación a presentar.

La solicitud de ayuda habrá formularse cumplimentando el modelo normalizado que se recoge en Anexo II, al que deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Copia, en su caso, del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o registro público correspondiente.

b) Copia, en su caso, del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

c) Copia, en su caso, de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad organizadora.

d) Documento, en su caso, expedido por la instancia administrativa correspondiente acreditando que la entidad organizadora está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

e) Memoria en la que se recojan los objetivos que han llevado a organizar el curso, así como la difusión prevista de las actividades.

f) Curriculum Vitae abreviado del responsable de la organización del curso.

g) Programa preliminar, con una descripción lo más detallada posible del contenido del curso.

h) Nombre de los docentes principales, con una breve especificación de su trayectoria científica y profesional.

i) Diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza.

j) Bankuko datuak, beharrezko izanez gero (II. eranskina).

k) Ikasleen hautaketarako mekanismoak.

l) Emango diren diploma edo ziurtagiriak, dagokion kasuan.

m) Jardueraren kreditazioaren ziurtagiriaren kopia, behar izanez gero.

Azken bost urteotan laguntza hauetako deialdietara aurkeztu diren entitateek ez dute a), b) eta c) puntuetako agiririk aurkeztu beharrik izango, baldin eta eskatutako agirietako datuetan ordutik aldaketarik egon ez bada.

*25. artikulua.–* Esleitzeko irizpideak.

Laguntzen esleipena honako irizpide hauetan oinarriturik egingo da:

| | |
|---|---|
| Ikastaroaren helburuak: | Gehienez 15 puntu. |
| Antolaketa eta logistika: | Gehienez 15 puntu |
| Ikastaroaren egokitasuna: | Gehienez 30 puntu |
| Irakasteko metodologia: | Gehienez 20 puntu |
| Ebaluazioa: | Gehienez 20 puntu |

*26. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, hauek hartuko dira kontuan: gastuen eta sarreren aurrekontua eta bestelako finantzabiderik dagoen.

Emandako diru-laguntzak ez du inoiz eskabidean adierazten den defizit osoa gaindituko.

*27. artikulua.–* Ordaintzeko modua.

Laguntzen ordainketa 13. artikuluan aurreikusten den arabera gauzatuko da; eta bigarren igorpena, artikulu horrek berak aipatzen duena, lagundutako ikastaroa egin ostean eta, 3 hilabeteko epean gehienez, agiri hauek bidali ondoren:

a) Diruz lagundutako bilkurak sortutako gastu eta sarrera guztien ekonomi balantzea, entitate antolatzailearen legezko ordezkariaren oniritziarekin.

b) Ikastaroaren antolaketan sortutako gastu guztien jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak, salbu eta laguntza esleitzeko ebazpenean zein kontzeptu ordaintzeko ematen den zehazten bada, kasu horretan kontzeptu horiei buruzko jatorrizko fakturak baino ez baitira aurkeztuko.

c) Amaierako oroit-txostena ikastaroan emandako materialekin batera.

d) Dagokion erakunde administratiboak egindako egiaztagiria, ikastaroa antolatzen duen elkarteak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena. Aipatu egiaztagiriak puntu honetan exijitzen den dokumentazioa bidaltzeko unean eguneratuta egon behar du.

i) Presupuesto detallado de ingresos y gastos.

j) Datos bancarios, en su caso (anexo V).

k) Mecanismos de selección de los alumnos.

l) Diploma o certificado a expedir, en su caso.

m) Copia, en su caso, del certificado de acreditación de la actividad.

Las entidades que se hayan presentado a la convocatoria ayudas análogas a éstas en los cinco últimos años no deberán presentar los documentos a), b) y c), siempre y cuando no haya habido modificaciones en los datos a los que haría referencia la documentación exenta de presentación.

***Artículo 25.–*** Criterios de adjudicación.

La adjudicación de las ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

| | |
|---|---|
| Objetivos del Curso: | Máximo 15 puntos. |
| Organización y logística: | Máximo 15 puntos. |
| Pertinencia del Curso: | Máximo 30 puntos. |
| Metodología docente: | Máximo 20 puntos. |
| Evaluación: | Máximo 20 puntos. |

***Artículo 26.–*** Cuantíficación de las ayudas.

Para determinar la cuantía de la ayuda, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos y la existencia de otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud.

***Artículo 27.–*** Pago.

El Pago de la ayuda concedida se efectuará según lo previsto en el artículo 13, efectuándose el segundo libramiento a que el mismo se refiere una vez realizado el curso subvencionado, tras la presentación, en un plazo máximo de tres meses desde su finalización, de la siguiente documentación:

a) Balance económico de los gastos e ingresos totales de la reunión subvencionada, con el visto bueno del represente legal de la entidad organizadora.

b) Originales o copias compulsadas de las facturas del total de gastos generados por la organización del curso, salvo que en la Resolución de concesión se determinen los conceptos para cuyo pago va dirigida la ayuda, en cuyo caso sólo deberán presentarse las facturas originales relativas a dichos gastos.

c) Memoria final incluyendo material entregado en el curso.

d) Documento, en su caso, expedido por la instancia administrativa correspondiente, acreditando que la entidad organizadora de la reunión está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas. Esta certificación deberá estar actualizada al momento del envío de la documentación exigida en este punto.

Deialdi hau indarrean jarri aurretik egin bada ikastaroa, agiri horiek aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, Osasun Sailburuordeak laguntzak esleitzeko emandako ebazpena argitaratzen denetik kontatzen hasita.

IV. KAPITULUA

ENTITATEAK SORTZEKO EDO FUNTZIONARAZTEKO LAGUNTZAK

*28. artikulua.–* Helburua.

Modalitate honen helburua 2003. urtean erakundeak sortzeko edo funtzionarazteko laguntzak ematea da. Erakundeok baldintza hauek bete behar dituzte: profesional sanitarioak teknika-alorrean prestatu eta eguneratzea edota osasun-ikerketak sustatzea, irabazi-asmorik ez izatea eta Egoitza Ofiziala Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan edukitzea.

Entitateak eratzeko gastuen artean era honetakoak sartuko dira: delako entitatea prestatzeko egindako bileretan eta entitatearen berri ematean sortutakoak, notarioaren erregistroetako eta erregistro publikoetako jarduerenak, Ogasunarekin egindakoak, administraziokoak eta langileei dagozkienak eta entitatea sortzeko beharrezkoak diren beste guztiak.

Entitateen jarduerako gastuen artean, halaber, era honetakoak sartuko dira: beren jardueretan egindako bilerak antolatzean sortutakoak, administrazioan, argitalpenetan, bidaietan, amortizazioetan eta langileekin egindakoak, zabalkundea egitean sorturikoak eta, azkenik, entitatearen jarduerak gauzatzerakoan egindako beste guztiak.

*29. artikulua.–* Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntza-eskabidea agindu honetako III. eranskineko ereduaren arabera beteko da eta, horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Elkarteen Erroldan edo dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzeko agiriaren kopia.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea eman zaiola egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

c) Entitatearen estatutuen edo arautegi ofizialen kopia.

d) Lekuan lekuko Foru Ogasunaren ziurtagiria, erakunde eskatzaileak zerga-obligazioak ordainduta dituela edo ordaindu beharrik ez duela egiaztatzen duena.

e) 2003. urterako jardueren plana, laguntza zertarako eskatzen den zehaztuta.

f) Erakundearen 2003. urterako gutxi gorabeherako aurrekontua, gastuak eta sarrerak adieraziz, bazkideen kuotak eta beste finantzabide batzuk zehaztuz.

En el supuesto en que el curso se hubiese celebrado con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Convocatoria, la citada documentación deberá presentarse en el plazo de tres meses contados a partir de la publicación de la Resolución del Viceconsejero de Sanidad por la que se conceden las ayudas.

CAPÍTULO IV

AYUDAS A LA CONSTITUCIÓN O FUNCIONAMIENTO DE ENTIDADES.

*Artículo 28.–* Finalidad.

Es objeto de esta modalidad, dirigida a sociedades científicas de especialidades sanitarias sin animo de lucro con domicilio oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco que faciliten a los profesionales sanitarios formación y actualización técnica o fomenten la investigación sanitaria, conceder ayudas para financiar gastos de constitución o de funcionamiento durante el año 2003.

Se entenderán comprendidos en el concepto de gastos de constitución de entidades los originados con ocasión de la celebración de reuniones preparatorias de la misma, su difusión, las actuaciones en registros públicos y notariales que se realicen, las obligaciones con Hacienda, los gastos de administración y de personal y cualquier otro necesario para la creación de la entidad.

Asimismo, se considerarán gastos de funcionamiento de las entidades los derivados de organización de reuniones en el transcurso de su actividad, de administración, de personal, de difusión, de publicaciones, de desplazamientos, de amortizaciones y cualquier otro ocasionado en el curso del desenvolvimiento de su actividad.

*Artículo 29.–* Solicitud y documentación a presentar.

La solicitud de ayuda habrá formularse cumplimentando el modelo normalizado que se recoge en Anexo III, al que deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Copia del Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o Registro Público correspondiente.

b) Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

c) Copia de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad.

d) Documento expedido por la instancia administrativa correspondiente acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

e) Plan de actividades para el año 2003 en el que se especifique los fines para los que se pide la ayuda.

f) Presupuesto estimado de la entidad para el año 2003 detallando gastos e ingresos, especificando las cuotas de socios y otras fuentes de financiación.

g) Aurreko urteko jardueren memoria, azken ekitaldiko emaitzen balantzea eta kontua edo, hori ezean, diru sarreren eta gastuen kontrola.

h) Bankuko datuak (V. eranskina).

Entitatea eratzeko laguntza eskatzen duten erakundeek ez dute a), b), d) eta g) idatz-zatietan eskatutako agiriak aurkeztu beharrik izango eta, bestalde, azken bost urte hauetan era honetako laguntzak eskatu dituztenek d), e), f), g), eta h) idatz-zatietan eskatutako agiriak baino ez dituzte aurkeztu beharko, baldin eta aurkeztu beharreko agirietako datuetan aldaketarik egon ez bada ordutik hona.

*30. artikulua.–* Esleitzeko irizpideak.

Laguntzen esleipena honako irizpide hauetan oinarriturik egingo da:

2001erako jardueren plana eta laguntzaren eskabidean zehazturiko helburuak: Gehienez 60 puntu.

Entitateak gizartean duen eragina, kideen kopuruaren, aurretik burutu dituen ekintzen eta biztanleriaren osasuna hobetzeko eskaini duen laguntzaren arabera: Gehienez 40 puntu.

*31. artikulua. –* Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko da gastuen eta sarreren aurrekontua, eta ea bestelako finantzabiderik dagoen ala ez.

Ematen den diru-laguntzak ez du inoiz eskabidean adierazten den defizit osoa gaindituko eta zenbateko hori gehienez ere 6.000,00 euro izan daiteke.

*32. artikulua.–* Ordaintzeko modua.

Laguntzen ordainketa 13. artikuluan aurreikusten den arabera gauzatuko da; eta bigarren igorpena, artikulu horrek berak aipatzen duena, lagundutako bilkura egin ostean eta, 2004ko martxoaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu ondoren:

a) Urtean zehar gauzatu diren aktibitateen oroittxostena.

b) Emaitzen balantzea eta kontua, entitatearen legezko ordezkariaren oniritziarekin.

c) Entitatea eratzeko eta/edo urte guztian zehar funtzionarazteko sortu diren gastu guztien jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak, salbu eta laguntza esleitzeko ebazpenean zein kontzeptu ordaintzeko ematen den zehazten bada, kasu horretan kontzeptu horiei dagozkien jatorrizko fakturak baino ez baitira aurkeztuko.

d) Dagokion erakunde administratiboak egindako egiaztagiria, entitateak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena. Aipatu egiaztagiriak puntu honetan exijitzen den dokumentazioa bidaltzeko unean eguneratuta egon behar du.

g) Memoria de actividades del año anterior, balance y cuenta de resultados del último ejercicio o, en su defecto, relación de ingresos y gastos.

h) Datos bancarios (Anexo V).

Aquellas entidades que soliciten la ayuda para su constitución estarán exentas de adjuntar la documentación señalada en los apartados a), b), d) y g) y las que se hayan presentado a la convocatoria de estas ayudas en los cinco últimos años sólo deberán presentar los documentos d), e), f), g) y h) siempre y cuando no haya habido modificaciones en los datos a los que hace referencia la documentación exenta de presentación.

*Artículo 30.–* Criterios de adjudicación.

La adjudicación de las ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

Plan de actividades para el año 2003 y fines concretos para los que se pide la ayuda: Máximo 60 puntos.

Relevancia social de la entidad teniendo en su número de miembros, actividadesrealizadas y su aportación a la mejora de la salud de la población: Máximo 40 puntos.

*Artículo 31.–* Cuantificación de las ayudas.

Para determinar la concreta cuantía de la ayuda, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos y tendrá en cuenta otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud, ni superar la cuantía de 6.000,00 euros.

*Artículo 32.–* Pago.

El Pago de la ayuda concedida se efectuará según lo previsto en el artículo 13, efectuándose el segundo libramiento a que el mismo se refiere una vez finalizada la actuación subvencionada, tras la presentación, antes del 31 de marzo de 2004, de la siguiente documentación:

a) Memoria de las actividades realizadas durante el año.

b) Balance y cuenta de resultados con el visto bueno del representante legal de la entidad.

c) Originales o copias compulsadas de las facturas del total de gastos generados por la constitución y/o funcionamiento durante el año, salvo que en la Resolución de concesión se determinen los conceptos para cuyo pago va dirigida la ayuda, en cuyo caso sólo deberán presentarse las facturas originales relativas a dichos gastos.

d) Documento, expedido por la instancia administrativa correspondiente, y actualizado al momento del envío de la documentación exigida en este punto, acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

## V. KAPITULUA

## ALDIZKARIAK ARGITARATZEKO LAGUNTZAK

*33. artikulua.–* Helburua.

Modalitate honen helburua laguntzak ematea da 2003. urtean izaera zientifikoko aldizkariak argitaratzeko, irabazi-asmorik ez duten eta Egoitza Ofiziala Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan daukaten espezialitate sanitarioko elkarte zientifikoei eta beste zenbait entitateri.

*34. artikulua.–* Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntza-eskabidea agindu honetako IV. eranskinean jasoa dagoen ereduaren arabera beteko da eta, horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Elkarteen Erroldan edo dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzeko Agiriaren Kopia.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodea eman zaiola egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

c) Lekuan lekuko erakunde administrariaren ziurtagiria, entitateak zerga-obligazioak ordainduta dituela edo ordaindu beharrik ez duela egiaztatzen duena.

d) Aldizkariaren mota edo izaerari buruzko datu hauek emango dituen txostena: zer publikori zuzendua den, aldizkariaren banaketaren hedadura, periodikotasuna, tirada, orrialdeen tamaina eta kopurua; argitaratzlearen eta/edo zuzendariaren izena, erredakzio batzordeko kideak eta kolaboratzaile nagusiak, ISSN zenbakia, badin badauka, eta datu-base dokumentalen batean sartuta dagoela adierazteko ziurtagiria, hala balego.

e) Urteko aurrekontua, gastuak eta sarrerak zehaztuz (harpide-kopurua, ale bakoitzeko prezioa eta gainerako finantzazio-iturriak).

f) Argitaratutako azken zenbakiaren ale bat edo, argitalpen berria bada, eskatutako laguntzarekin ordainduko den argitalpenaren zirriborroa.

g) Bankuko datuak (V. eranskina).

Azken bost urte hauetan diru-laguntza eskatu duten entitateek eskatu zituztenek d), e), f) eta g) idatzzatietan eskatutako agiriak baino ez dituzte aurkeztu beharko, baldin eta aurkeztu beharreko agirietako datuetan aldaketarik egon ez bada ordutik hona.

*35. artikulua.–* Esleitzeko irizpideak.

Laguntzen esleipena honako irizpide hauetan oinarriturik egingo da:

Argitalpenaren ospe zientifikoa: Gehienez 50 puntu.

Zein kolektibori zuzenduta dagoen: Gehienez 20 puntu.

Hedadura-eremua: Gehienez 30 puntu.

## CAPÍTULO V

## AYUDAS A LA EDICIÓN DE PUBLICACIONES PERIÓDICAS

*Artículo 33.–* Finalidad.

Es objeto de esta modalidad conceder ayudas para financiar la edición de publicaciones periódicas de carácter científico sanitario durante el año 2003 por parte de sociedades científicas de especialidades sanitarias y demás entidades de carácter sanitario sin animo de lucro con domicilio oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 34.–* Solicitud y documentación a presentar.

La solicitud de ayuda habrá formularse cumplimentando el modelo normalizado que se recoge en Anexo IV, al que deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Copia del Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o registro público correspondiente.

b) Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

c) Documento expedido por la instancia administrativa correspondiente acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

d) Memoria en la que se detalle el tipo o carácter de la publicación, público al que va dirigida, ámbito de distribución de la publicación, periodicidad, tirada, tamaño y número de páginas; nombre del editor y/o director, miembros del comité de redacción y principales colaboradores, en su caso, número de ISSN, constancia de estar incluida en alguna base de datos documental, si lo estuviese.

e) Presupuesto anual detallando gastos e ingresos (especificar número de suscriptores, precio de venta del ejemplar y otras fuentes de financiación).

f) Ejemplar del último número publicado o ejemplar de borrador para el que se solicita la ayuda, en caso de ser una publicación de nueva aparición.

g) Datos bancarios (Anexo V).

Aquellas entidades que se hayan presentado en los cinco últimos años año, sólo deberán aportar los documentos d), e) f) y g), siempre y cuando no haya habido modificaciones en los datos a los que hace referencia la documentación exenta de presentación.

*Artículo 35.–* Criterios de adjudicación.

La adjudicación de las ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

Prestigio científico de la publicación: Máximo 50 puntos.

Colectivo al que va dirigida: Máximo 20 puntos.

Ámbito de difusión: Máximo 30 puntos.

*36. artikulua.* – Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko da gastuen eta sarreren aurrekontua, eta ea bestelako finantzabiderik dagoen ala ez.

Ematen den diru-laguntzak ez du inoiz eskabidean adierazten den defizit osoa gaindituko.

*37. artikulua.*– Ordaintzeko modua.

Laguntzen ordainketa 13. artikuluan aurreikusten den arabera gauzatuko da; eta bigarren igorpena, artikulu horrek berak aipatzen duena, lagundutako jarduera egin ostean eta, 2004ko martxoaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu ondoren:

a) 2003 urtean argitaratu den aldizkariaren zenbaki bakoitzaren ale bat.

b) Emaitzen balantzea eta kontua, entitatearen legezko ordezkariaren oniritziarekin.

c) Urte guztian zehar aldizkariaren argitalpenetik eratorri diren gastu guztien jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak, salbu eta laguntza esleitzeko ebazpenean zein kontzeptu ordaintzeko ematen den zehazten bada, kasu horretan kontzeptu horiei dagozkien jatorrizko fakturak baino ez baitira aurkeztuko.

d) Dagokion erakunde administratiboak egindako egiaztagiria, entitateak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena. Aipatu egiaztagiriak puntu honetan exijitzen den dokumentazioa bidaltzeko unean eguneratuta egon behar du.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honen aurka, administraziobidea agortzen baitu, interesatuek aurkeztu ahal izango dute aukerako berraztertzeko errekurtsoa Osasun sailburuaren aurrean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean; edo, zuzenean, Administrazioarekiko auzietako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, aldizkari ofizial berean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

***Bigarrena.***– Agindu honetan aurreikusten ez den guztian erabilgarri izango da urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

***Hirugarrena.***– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko ekainaren 3a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

*Artículo 36.*– Cuantificación de las ayudas.

Para determinar la concreta cuantía de la ayuda, se atenderá al presupuesto de ingresos y gastos y tendrá en cuenta otras fuentes de financiación.

La ayuda concedida no podrá superar, en ningún caso, el déficit que conste en el presupuesto presentado con la solicitud.

*Artículo 37.*– Pago.

El Pago de la ayuda concedida se efectuará según lo previsto en el artículo 13, efectuándose el segundo libramiento a que el mismo se refiere una vez finalizada la actuación subvencionada, tras la presentación, antes del 31 de marzo de 2004, de la siguiente documentación:

a) Ejemplar de cada número de la revista publicado en el año 2003.

b) Balance y cuenta de resultados con el visto bueno del representante legal de la entidad.

c) Originales o copias compulsadas de las facturas del total de gastos generados por la edición de la publicación durante el año, salvo que en la Resolución de concesión se determinen los conceptos para cuyo pago va dirigida la ayuda, en cuyo caso sólo deberán presentarse las facturas originales relativas a dichos gastos.

d) Documento, expedido por la instancia administrativa correspondiente, y actualizado al momento del envío de la documentación exigida en este punto, acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda.***– En todo lo no previsto en la presente Orden será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

***Tercera.***– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de junio de 2003.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.

# I. ERANSKINA

## ZIENTZI BILKURAK ANTOLATZEKO LAGUNTZETARAKO ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIA

ERAKUNDE EDO ENTITATE ANTOLATZAILEAREN DATUAK

Izen ofiziala: ..........................................................................................................................................................................
Helbidea: ................................................................................................................................................................................
Herria: ........................................................................................................................ P.K.: ......................................................
Telefonoa: ................................. Faxa: ....................... E.Mail: ..................................................................................
Elkarteen Erregistroko inskripzio-zenbakia: ........................................................................................................................
Identifikazio fiskaleko zenbakia: ..........................................................................................................................................

Zuzendaritza Batzordeko kideak:

| Izena: | Kargua: |
| --- | --- |
| .................................................................. | ...................................................... |
| .................................................................. | ...................................................... |
| .................................................................. | ...................................................... |
| .................................................................. | ...................................................... |
| .................................................................. | ...................................................... |

BANKUKO DATUAK: Bete hirugarren interesatuaren datuen altako inprimakia, V. eranskinean datorrena.

AURKEZTEN DIREN AGIRIAK (jarri «x» bat):

[ ] Elkarteen erregistroko edo dagokion erregistro publikoko inskripzio-agiriaren kopia.
[ ] Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.
[ ] Entitate antolatzailearen estatutuen edo arau ofizialen kopia.
[ ] Ogasunak egindako egiaztagiria, elkarteak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena.

.....................-(e)n, ....-(e)ko .........-ren ....-(e)an

Sinadura: Zigilua

ORDEZKARIAREN IZENA ETA KARGUA

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARI JAUNA

BILKURARI BURUZKO DATUAK

Bilkuraren izen ofiziala: ..........................................................................................................................................

Hedadura geografikoa:

| Lurralde Historikoa | E.A.E | Espainiako estatua | Nazioartekoa |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

Egingo den tokia: ..................................................................................................................................................
Helbidea: ..............................................................................................................................................................
Herria: ..................................................................................................................................................................

Hasiera-eguna: ............................................................... Amaiera-eguna ............................................................................

Ekitaldiaren iraupean (ordu-kopurua): .............................. Parte hartzaileen kopurua gutxi gorabehera: ...........................

Erakunde antolatzaileak:.
.............................................................................................................................................................................
.............................................................................................................................................................................

Erakundearen arduradunaren izena: ....................................................................................................................
.............................................................................................................................................................................

Aurrekontua guztira: Gastuak: ................................................................ euro Sarrerak: ........................ euro
Izen-emate kuota: .................................................................................... euro
Deialdi honetan eskatutako zenbatekoa: .................................................. euro

Eskatutako beste laguntzak:

| Erakundea: | Zenbatekoa: |
|---|---|
| ......................................................................................... | ................................................................ euro |
| ......................................................................................... | ................................................................ euro |
| ......................................................................................... | ................................................................ euro |

Aurkezten diren agiriak (Jarri «x» bat):
[ ] Bilkura antolatzea eragin duten osasun-helburuak.
[ ] Bilkura antolatzen duen arduradunaren curriculum vitae.
[ ] Aldez aurreko programa ekitaldi zientifikoen deskribapen zehatzarekin.
[ ] Hizlari garrantzitsuenen izena eta estatusa.
[ ] Sarrera eta gastuen aurrekontua kontzeptuka eta zehazki deskribaturik.
[ ] Bilkurako jarduerak argitaratu edo zabaltzeko posibilitatea.
[ ] Aurreko urtean laguntza jaso bada, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila babeslea izan den aipamenaren konstantzia.

II. ERANSKINA

IKASTAROAK ANTOLATZEKO LAGUNTZETARAKO ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIA.

ENTITATE ANTOLATZAILEAREN DATUAK

Izen ofiziala: ..............................................................................................................................................................
Helbidea: .....................................................................................................................................................................
................................................................................................................... P.K.: .................................................................
Telefonoa: ................................. Faxa: ....................... E.Mail: ................................................................................
Elkarteen Erregistroko inskripzio-zenbakia: ...............................................................................................................
Identifikazio fiskaleko zenbakia: ..................................................................................................................................
Zuzendaritza Batzordeko kideak:

| Izena: | Kargua: |
|---|---|
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |

BANKUKO DATUAK: Bete hirugarren interesatuaren datuen altako inprimakia, V. eranskinean datorrena.

Aurkezten diren AGIRIAK (jarri «x» bat):

[ ] Elkarteen erregistroko edo dagokion erregistro publikoko inskripzio-agiriaren kopia.
[ ] Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.
[ ] Entitate antolatzailearen estatutuen edo arau ofizialen kopia.
[ ] Ogasunak egindako egiaztagiria, elkarteak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena.

................-(e)n, ....-(e)ko ...........-ren ....-(e)an

Sinadura: Zigilua

ORDEZKARIAREN IZENA ETA KARGUA

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARI JAUNA

IKASTAROARI BURUZKO DATUAK

Ikastaroaren izen ofiziala: ..................................................................................................................................................

Egingo den tokia: ..............................................................................................................................................................

Herria: ............................................................................................................................................................................

Hasiera-eguna: .............................................................................................................. Amaiera-eguna: ................................
Ordu-kopurua (guztira): ...................................................................................................... Teorikoak .......Praktikoak........

Erakunde antolatzailea:. ......................................................................................................................................................
Ikastaroaren arduradunaren izena: ........................................................................................................................................
Ikastaroa zuzentzen zaion kolektiboa: .....................................................................................................................................
Aurreikusten den ikasle-kopurua

Aurrekontua guztira: Gastuak: ................................................................ euro Sarrerak: ............................ euro
Izen-emate kuota: ................................................................................... euro
Eskatutako zenbatekoa: ........................................................................... euro

Eskatutako beste laguntzak:

| Erakundea: | Zenbatekoa: |
|---|---|
| ............................................................................................... | ................................................................ euro |
| ............................................................................................... | ................................................................ euro |
| ............................................................................................... | ................................................................ euro |

Aurkezten diren agiriak (Jarri «x» bat):

[ ] Ikastaroa antolatzearen helburu orokorra eta xede espezifikoak.
[ ] Antolaketa eta logistika: egutegia, giza baliabideak (hizlari garrantzitsuenen izena eta estatusa), baliabide materialak, ikasleak hautatzeko mekanismoak eta ikastaroa antolatzeaz arduratuko denaren Curriculum Vitae-a
[ ] Jardueraren egokitasuna: jardueraren edukiak zer premiei erantzuten dien eta nola detektatu diren premia horiek.
[ ] Irakaskuntza-metodologia
[ ] Ebaluazio-sistema: asistentzia-kontrola, aprobetxamendu-azterketa edo amaitu ondorengo lana
[ ] Finantzazioa: kontzeptuen arabera zehaztutako sarreren eta gastuen aurrekontua, bestelako finantzazio-iturriei buruzko zinpeko aitorpena. Aurreko urtean laguntza jaso bada, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila babeslea izan den aipamenaren konstantzia.
[ ] Emango den diploma edo ziurtagiria.
[ ] Dagokion kasuan, jardueraren kreditazio-egiaztagiria, Profesio Sanitarioetako Prestakuntza Etengabeko Euskal Kontseiluak emana.

## III. ERANSKINA

## ENTITATE ZIENTIFIKO-SANITARIOEN ERAKETARAKO EDO FUNTZIONAMENDURAKO LAGUNTZAK ESKATZEKO INPRIMAKIA

ENTITATEAREN DATUAK

Izen ofiziala: ..........................................................................................................................................................
Helbidea: ...............................................................................................................................................................
Herria: ............................................................................................................ P.K.: .....................................................
Telefonoa: ................................. Faxa: ....................... E.Mail: .............................................................................
Elkarteen Erregistroko inskripzio-zenbakia:
Identifikazio fiskaleko zenbakia: .........................................................................................................................
Bazkide-kop.

Zuzendaritza Batzordeko kideak:

| Izena: | Kargua: |
|---|---|
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |

Deialdi honetan eskaturiko zenbatekoa (Guztizkoa eta kontzeptuka zehaztua):

| | |
|---|---|
| ..................................................................................... | .................................................. euro |
| ..................................................................................... | .................................................. euro |
| ..................................................................................... | .................................................. euro |
| ..................................................................................... | .................................................. euro |
| ..................................................................................... | .................................................. euro |
| | GUZTIRA ................................ euro |

BANKUKO DATUAK: Bete hirugarren interesatuaren datuen altako inprimakia, V. eranskinean datorrena.

....................-(e)n, ....-(e)ko ...........-ren ..-(e)an

Sinadura: Entitatearen zigilua

ORDEZKARIAREN IZENA ETA KARGUA ............................

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARI JAUNA

Aurkezten diren Agiriak (Jarri «x» bat):

[ ] Elkarteen erregistroko edo dagokion erregistro publikoko inskripzio-agiriaren kopia
[ ] Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.
[ ] Entitatearen estatutuen edo arau ofizialen kopia.
[ ] Ogasunak egindako egiaztagiria, elkarteak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena.
[ ] Urterako jardueren egitaraua.
[ ] Urterako aurreikusten diren gastu eta diru-sarreren aurrekontu zehaztua (kuotak eta gainerako finantzazio-iturriak barne hartuz)
[ ] Aurreko urteko jardueren oroit-txostena eta azken urteko ekitaldiko Emaitzen Kontua eta Balantzea
[ ] Aurreko urtean laguntza jaso bada, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila babeslea izan den aipamenaren konstantzia.
[ ] Beste batzuk (zehaztu gabe)

IV. ERANSKINA

ALDIZKARIAK ARGITARATZEKO LAGUNTZAK ESKATZEKO INPRIMAKIA

ENTITATEAREN DATUAK

Izen ofiziala: ..........................................................................................................................................................
Helbidea: ...............................................................................................................................................................
Herria: .................................................................................................................................... P.K.: .........................
Telefonoa: .............................. Faxa: ....................... E.Mail: ....................................................................................

Elkarteen Erregistroko inskripzio-zenbakia: .........................................................................................................
Identifikazio fiskaleko zenbakia: .............................................................................................................................
Bazkide-kop.

Zuzendaritza Batzordeko kideak:

| Izena: | Kargua: |
|---|---|
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |

Deialdi honetan eskaturiko zenbatekoa: ..................... euro

...............-(e)n, ....-(e)ko ..........-ren ....-(e)an

Sinadura.: Entitatearen zigilua

ORDEZKARIAREN IZENA ETA KARGUA ..............................................................................................................
.....................................................................................................................................................................................

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARI JAUNA
Aurkezten diren Agiriak (Jarri «x» bat):

[ ] Elkarteen erregistroko edo dagokion erregistro publikoko inskripzio-agiriaren kopia.
[ ] Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola egiaztatzen duen agiriaren kopia.
[ ] Ogasunak egindako egiaztagiria, elkarteak zerga-obligazioak bete dituela edo bete beharrik ez duela adierazten duena.
[ ] Helburu berbererako finantzazio-iturrien zinpeko aitorpena.
[ ] Datu hauek jasotzen dituen txostena: argitalpenaren ezaugarriak, editore eta/edo zuzendaria, erredakzio-komitea eta ISSN.
[ ] Diru-sarreren eta gastuen urteko aurrekontua (harpidetzak, alearen prezioa eta bestelako finantzazio-bideak barne).
[ ] Argitaratutako azken zenbakiaren ale bat edo argitalpenaren proiektuaren ale bat.
[ ] Aurreko urtean laguntzarik jaso bada, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren babesa jaso izanaren aipamena.
[ ] Beste batzuk (zehaztu)

*ANEXO I*

*IMPRESO DE SOLICITUD DE AYUDA PARA ORGANIZACIÓN DE REUNIONES CIENTÍFICAS*

*DATOS DE LA ENTIDAD ORGANIZADORA*

*Denominación oficial:* ..............................................................................................................................................
*Domicilio:* ..............................................................................................................................................
*Localidad:* ........................................................................................................................*C.P:* ..............................
*Telefono:* ........................................... *Fax:* ................................... *E.Mail:* ........................................................................
*N.º Inscripción Registro Asociaciones:* ..............................................................................................................................
*N.º Identificación Fiscal:* ..............................................................................................................................................

*Composición Junta Directiva:*

| *Nombre:* | *Cargo:* |
|---|---|
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |

*DATOS BANCARIOS: Cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado que aparece en el Anexo V.*

*DOCUMENTACIÓN que se adjunta (Marcar con una «x»):*

*{ } Copia del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o Registro Público correspondiente.*
*{ } Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.*
*{ } Copia de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad organizadora.*
*{ } Certificado expedido por la instancia administrativa correspondiente acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.*

*En................................., a ......de......................de.....*

*Firma:* *Sello*

*NOMBRE Y CARGO DEL REPRESENTANTE*

*ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA*

*DATOS DE LA REUNION*

*Nombre oficial de la Reunión:* ..........................................................................................................................................
..........................................................................................................................................................................

*Ambito geográfico:*

| *Territorio Histórico* | *C.A.P.V.* | *Estado español* | *Internacional* |
|---|---|---|---|
| ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

*Lugar de celebración:* .................................................................................................................................................
*Dirección:* ....................................................................................................................................................................
*Localidad:* ...................................................................................................................................................................

*Fecha Comienzo:* ........................................................... *Fecha Finalización:* ......................................................................

*Duración del acto (N.º de horas):* .................................... *N.º estimado de participantes:* ......................................................

*Entidades organizadoras:*
..........................................................................................................................................................................
..........................................................................................................................................................................

*Nombre del responsable de la organización:* ...........................................................................................................
..........................................................................................................................................................................

*Presupuesto total: Gastos:* .................................................................. *euros* *Ingresos :*..................................*euros*
*Cuota de inscripción:* ......................................................................... *euros*
*Cantidad solicitada:* ........................................................................... *euros*

*Otras subvenciones solicitadas:*

| *Entidad:* | *Cuantía:* |
|---|---|
| ............................................................................................ | ................................................................. *euros* |
| ............................................................................................ | ................................................................. *euros* |
| ............................................................................................ | ................................................................. *euros* |

*Documentación que se adjunta (Marcar con una «x»):*

*{ } Memoria de los objetivos sanitarios que han llevado a organizar la reunión*
*{ } Curriculum Vitae del responsable de la organización de la reunión*
*{ } Programa preliminar con descripción detallada de los actos científicos*
*{ } Nombre y posición de los ponentes principales y componentes del Comité Científico*
*{ } Presupuesto de ingresos y gastos detallados por conceptos*
*{ } Posible publicación o difusión de las actividades de la reunión*
*{ } En caso de haber recibido una ayuda en el año anterior, constancia de mención del patrocinio del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco*

*ANEXO II*

*IMPRESO DE SOLICITUD DE AYUDA PARA LA ORGANIZACIÓN DE CURSOS*

*DATOS DE LA ENTIDAD ORGANIZADORA*

*Denominación oficial:* ......................................................................................................................................................
*Domicilio:* ...................................................................................................................................................................
*Localidad:* ..................................................................................................................................................................
*Telefono:* ........................................... *Fax:* ................................... *E.Mail:* .........................................................................

*N.º Inscripción Registro Asociaciones:* ............................................................................................................................
*N.º Identificación Fiscal:* ......................................................................... *N.º de socios:* ........................................................

*Composición Junta Directiva:*

| *Nombre:* | *Cargo:* |
|---|---|
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |
| ................................................................. | ..................................................... |

*DATOS BANCARIOS: Cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado que aparece en el anexo V.*

*DOCUMENTACIÓN que se adjunta (Marcar con una «x»):*

*{ } Copia del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o Registro Público correspondiente.*
*{ } Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.*
*{ } Copia de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad organizadora.*
*{ } Certificado expedido por Hacienda acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.*

*En.................................., a ......de......................de.....*

*Firma:* *Sello*

*NOMBRE Y CARGO DEL REPRESENTANTE:*.............................................................................................
.............................................................................................

*ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA*

*DATOS DEL CURSO*

*Nombre oficial del curso:* ..........................................................................................................................................
..........................................................................................................................................................................

*Lugar de celebración* .........................................................................................................................................
*Localidad* ........................................................................................................................................................

*Fecha de comienzo* ........................................................................................ *Finalización* ....................................................
*N.º de horas: Totales* .................................................. *Teóricas* .................................... *Prácticas* ...........................................

*Entidad organizadora* .........................................................................................................................................
*Nombre del responsable del curso* ....................................................................................................................
*Colectivo al que va dirigido el curso* .................................................................................................................
*N.º previsto de alumnos* ....................................................................................................................................

*Presupuesto total del curso: Gastos* ................................................ *euros* *Ingresos* ................................................*euros*
*Cuota de inscripción* ...................................................................... *euros*
*Cantidad solicitada*....................................................................... *euros*

*Otras subvenciones solicitadas:*

| *Entidad* | *Cuantía* |
|---|---|
| ...................................................................... | ...................................................*euros.* |
| ...................................................................... | ...................................................*euros* |
| ...................................................................... | ...................................................*euros* |

*Documentación que se presenta (Marcar con una «x»):*

*( ) Objetivo general del curso y objetivos específicos.*
*( )Organización y logística: calendario, recursos humanos (nombre y posición de los docentes principales), recursos materiales, mecanismos de selección de los alumnos y. Curriculum Vitae del responsable de la organización del curso.*
*( ) Pertinencia de la actividad: necesidades a las que responde el contenido de la actividad y cómo han sido detectadas.*
*( ) Metodología docente.*
*( ) Sistemas de evaluación: control de asistencia, examen de aprovechamiento o trabajo posterior.*
*( )Financiación: presupuesto de ingresos y gastos detallados por conceptos, declaración jurada sobre otras fuentes de financiación. En caso de haber recibido una ayuda en el año anterior, constancia de la mención del patrocinio del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.*
*( ) Diploma o certificado a expedir.*
*( ) Copia, en su caso, del certificado de acreditación de la actividad por el Consejo Vasco de Formación Continuada de las Profesiones Sanitarias.*

*ANEXO III*

*IMPRESO DE SOLICITUD DE AYUDA PARA LA CONSTITUCIÓN O EL FUNCIONAMIENTO DE ENTIDADES CIENTÍFICO-SANITARIAS*

*DATOS DE LA ENTIDAD*

*Denominación oficial:* ..................................................................................................................................................

*Domicilio:* ..................................................................................................................................................

*Localidad:* .................................................................................................................................................. *C.P.*

*Telefono:* .......................................... *Fax:* ................................... *E.Mail:* ..........................................................................

*N° Inscripción Registro Asociaciones:* ..................................................................................................................................................

*N° Identificación Fiscal:* ..................................................................................................................................................

*N° de socios:*

*Composición de la Junta Directiva:*

| *Nombre:* | *Cargo:* |
|---|---|
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |
| ................................................................. | ...................................................... |

*Cuantía solicitada en esta convocatoria (Total y desglosar por conceptos):*

| | |
|---|---|
| ........................................................................................... | .................................................. *euros* |
| ........................................................................................... | .................................................. *euros* |
| ........................................................................................... | .................................................. *euros* |
| ........................................................................................... | .................................................. *euros* |
| ........................................................................................... | .................................................. *euros* |
| | *TOTAL* ..................................*euros* |

*Datos bancarios: Cumplimentar el Impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado que aparece en el Anexo V.*

*En..................... a........de.....................de.......*

*Firma:* *Sello Entidad*

*NOMBRE Y CARGO DEL REPRESENTANTE:*

*ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA.*

*Documentación que se adjunta (marcar con una «x»):*

*{ } Copia del certificado de la Inscripción en el Registro de Asociaciones o Registro Público correspondiente.*
*{ } Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.*
*{ } Copia de los Estatutos o Reglamentos oficiales de la entidad.*
*{ } Certificado expedido por Hacienda acreditando que la Asociación está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.*
*{ } Plan de actividades para el año.*
*{ } Presupuesto detallado de gastos e ingresos para el año (incluyendo cuotas y otras fuentes de financiación).*
*{ } Memoria de actividades del año anterior y Balance y Cuenta de Resultados del último ejercicio.*
*{ } En caso de haber recibido una ayuda en el año anterior, constancia de mención del patrocinio del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.*
*{ } Otros (especificar).*

*ANEXO IV*

*IMPRESO DE SOLICITUD DE AYUDA PARA LA EDICIÓN DE PUBLICACIONES PERIÓDICAS*

*DATOS DE LA ENTIDAD*

*Denominación oficial:*
*Domicilio:* ..........................................................................................................................................................
*Localidad:* ...........................................................................................................................*C.P.* ................
*Telefono:* .......................................... *Fax:* .................................. *E.Mail:* ...............................................................

*N° Inscripción Registro Asociaciones:*
*N° Identificación Fiscal:* ..........................................................................................................................
*N° de socios*

*Composición Junta Directiva:*

| *Nombre:* | *Cargo:* |
|---|---|
| ................................................................ | ..................................................... |
| ................................................................ | ..................................................... |
| ................................................................ | ..................................................... |
| ................................................................ | ..................................................... |
| ................................................................ | ..................................................... |

*Cuantía solicitada en esta convocatoria:*........................................*euros*

*En*...................... *a*........*de*.....................*de*.......

*Firma:* *Sello Entidad*

*NOMBRE Y CARGO DEL REPRESENTANTE:* ..........................................................................................
..............................................................................................................................................................

*ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA.*

*PUBLICACIONES PERIÓDICAS*

*Documentación que se adjunta (marcar con una «x»):*

{ } *Copia del certificado de la Inscripción en el Registro de Asociaciones o Registro Público correspondiente.*
{ } *Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.*
{ } *Certificado expedido por instancia administrativa correspondiente acreditando que la Asociación está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.*
{ } *Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación para el mismo fin.*
{ } *Memoria con las características de la publicación, Editor y/o Director, Comité de Redacción e ISSN.*
{ } *Presupuesto anual de gastos e ingresos (incluyendo suscripciones, precio de venta del ejemplar y otras fuentes de financiación).*
{ } *Ejemplar del último número publicado o ejemplar del borrador del proyecto de publicación.*
{ } *En caso de haber recibido una ayuda en el año anterior, constancia de mención del patrocinio del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.*
{ } *Otros (especificar)*

V. ERASKINA / *ANEXO V*

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESATUA
*ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO*

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
*DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO* (A)

1) N.A.N./I.F.K.
*D.N.I./C.I.F* .............................................................................................

(2) Bi abizenak eta izena/erakundearen izena
*Dos apellidos y nombre/Razón Social* ..............................................................
.............................................................................................

HELBIDERATZE-DATUAK
*DATOS DE DOMICILIACION* (B)

Helbidea
*Domicilio* .............................................................................................
Posta kodea | Udala
*Código postal* ............................................ *Población* ..........................
Lurraldea
*Provincia* .............................................................................................

BANKUAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS* (C)

1) Bankua / *Banco* □□□□

(2) Agentzia / *Agencia* □□□□

(3) K.D. D.C. □□□□ K/Korrontea / *C.Corriente* □□□□□□□□□□

(4) Jabea / *Titular* :.............................................................................................

| Bankuaren adostasuna<br>*Conforme Banco*<br><br><br>Sinadura eta zigilua<br>*Sello y Firma (D)* | Hirugarrenaren adostasuna<br>*Conforme Tercero*<br><br><br>Sinadura eta zigilua<br>*Sello y firma (E)* | Sailaren onespena<br>*V.º B.º Departamento*<br><br><br>Baimendutako sinadura<br>*Firma autorizada (F)* | Kontabilitatearen onespena<br>*V.º B.º Contabilidad*<br><br><br>Baimendutako sinadura<br>*Firma autorizada (G)* |
|---|---|---|---|